

4. DIRU SARRERAK

IMANIZ proiektua martxan jartzeko behar den hasierako dirua iturri desberdinetatik etorriko da. Horrela, finantzaketa segurua eta jasangarria lortuko dugu, eta arrisku ekonomikoa banatu.

Hauek izango ziren aukera posibleak:

AUTO-FINANTZAKETA: GURE EKARPEN PERTSONALA

Hau izango da IMANIZen lehenengo eta funtsezko diru-sarrera.

Gure taldeak bere poltsikotik diru kopuru bat jarriko du, proiektuaren lehen faseak martxan jartzeko. Honek taldearen konpromisoa, motibazioa eta proiektuarekiko sinergia erakusten ditu.

Zertarako erabiliko da?

- Lehen prototipoak egiteko.
- Material ezberdinen probak egiteko.
- Logoaren eta markaren diseinu profesionala ordaintzeko.
- Beharrezko lehen tresnak edo makinak erosteko.
- Hasierako komunikazio eta kokapena prestatzeko.

Garrantzitsua da gure auto-finantzaketa kanpo finantzariak ikus dezaten proiektua serio hartzen dugula eta arriskuaren parte bat guk geuk ere hartzen dugula.

DIRU LAGUNTZAK ETA PROGRAMA PUBLIKOAK (UDALAK, FORU ALDUNDIAK, JAURLARITZA, etab.)

Administrazio publikoak proiektu sozial, hezitzaile eta inklusiboak babesteko eskaintzen dituen laguntzak. IMANIZ bereziki egokia da honetarako, balio sozial eta hezitzaile handia duelako.

Laguntza mota posibleak:

- Udaleko laguntzak: berrikuntza soziala, irisgarritasun proiektuak edo haurrei zuzendutako ekimenak.
- Foru Aldundiak: hezkuntza berezirako laguntzak edo gizarte-berrikuntza programak.
- Eusko Jaurlaritza: hezkuntza-berdintasuna, dibertsitate funtzionala eta material didaktiko inklusiboak garatzen dituzten proiektuak.

ELKARTEEKIN ELKARLANA

Dibertsitate funtzionala, hezkuntza berezia edo haurren garapena lantzen duten elkarteak. Proiektu sozialak babestu ohi dituzte.

ASPACE Arabako elkarte bat da non, behar bereziak dituzten pertsonekin lankidetzan aritzen dira.

Gure enpresak imana duten amantala egokituak egiten ditu, desgaitasuna duten pertsonen autonomia errazteko. ASPACEk laguntza eman diezaguke:

- Erabiltzaileen benetako beharrei buruzko aholkularitza.
- Hedapen eta kontaktuan: gure mantalen onuradun izan daitezkeen pertsonekin.
- Dirulaguntzetarako sarbidea: elkarteak gizarteratze eta irisgarritasun-proiektuetarako kudeatzen duena.
- Lankidetzak: erabiltzaileen autonomia hobetzen duten programa bateratuetan

ASPACEREkin lankidetzan aritzea funtsezkoa izango litzateke gure proiektua garatu, baliozkotu eta finantzatzeko, gehien behar dutenei zuzenean mesede eginez.

EDOZEIN MOTATAKO EKARPENAK

Hauek laguntza ekonomikoa edo materiala eskaintzen digute. Adibidez:

- Tokiko enpresak.
- Fundazioak.
- Herritarek.

Zer ekar dezakete?

- Diru-ekarpen zuzenak.
- Material edo zerbitzuen dohaintzak (oihalak, makinak, diseinuak...).
- Ekitaldi edo azoketan parte-hartzea ordaintzea.

BIBLIOGRAFIA

STARTInnova. (s. f.). <https://araba.startinnova.com/index.php?idioma=eu&action=logout>

Design.com. (2026, 7 enero). *Creador de logos | crea un logo gratis al instante.*

<https://www.design.com/es-es/creador-de-logos>

Unibertsitatea, M. (s. f.). *Grado en Liderazgo Emprendedor e Innovación.* Mondragon Unibertsitatea.

<https://www.mondragon.edu/es/grado-liderazgo-emprendedor-innovacion>

Como crear una empresa - Empleo. (s. f.). Basque Administration Web Portal.

<https://www.lanbide.euskadi.eus/informacion/como-crear-una-empresa-5/weblan00-empleo/es/>